

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1906

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 23koa, Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez ezesten baita Zigoitia eta Zuiako udal-mugarteetan (Araba) «Solaria Zierbena Solar 3» eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren eta haren ebakuazio-azpiegituren proiektuari dagokion aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera, Solaria Eguzki Sorkuntza, SLk sustatua, eta espedientea artxibatzen baita.

Espediente-zenbakia: 01GEY 202300034.

AURREKARIAK

Lehenengoa.— 2023ko uztailaren 13an, Solaria Promoción y Desarrollo Fotovoltaico SLUK (IFK: B87878518) aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zituen, Zigoitia eta Zuiako udal-mugarteetan (Araba) eguzki-teknologia fotovoltaiakoaren bidez elektrizitatea sortzeko «Solaria Zierbena Solar 3» izeneko instalazio-proiektuari eta haren ebakuazio-azpiegiturei («Gopegi» azpiestazioa eta ebakuazio-linea elektrikoa) dagokienez. Ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu zen, sustatzaile beraren «Solaria Zierbena Solar 2» eta «Solaria Zierbena Solar 4» instalazioekin batera; izan ere, «Solaria Zierbena Solar 3» proiektuak ebakuazio-azpiegiturak partekatzen ditu beste bi horiekin.

Bigarrena.— 2023ko irailaren 13an, instalazio fotovoltaiakoaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren bertsio berri bat aurkeztu zen.

Hirugarrena.— 2023ko azaroaren 23an, Solaria Promoción y Desarrollo Fotovoltaico SLUK sarbide-baimena eta konexio-baimena eguneratzeko bermeak ordeztzeko baimena eskatu zuen. Izan ere, hasiera batean, Arratzua-Ubarrundiako udal-mugartean eman zen baimen hori, baina udal-mugartea Zigoitiara aldatu zen gero, eta proiektuaren titulartasuna Solaria Eguzki Sorkuntza SLri eman zitzaion (IFK: B72752959), eta Red Eléctrica de España SAUK sarbide-eta konexio-baimenaren ondorioetarako instalazio berekotzat jotzen zuela berretsi zuen. Ordezkapen hori 2023ko abenduaren 22an baimendu zen.

Laugarrena.— 2024ko apirilaren 8an, dokumentazio berria aurkeztu zen, aurretik aurkeztutako dokumentazio teknikoan eta ingurumen-dokumentazioan antzemandako akatsak zuzentzeko.

Bosgarrena.— «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» eguzki-instalazio fotovoltaiakoak eta haien ebakuazio-azpiegiturak jendaurrean jartzeko iragarkia 2024ko maiatzaren 8ko ALHAOn (51. zk.), 2024ko maiatzaren 2ko EHAA (85. zk.) eta 2024ko maiatzaren 7ko BAO (87. zk.) argitaratu zen.

Seigarrena.— Aldi berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kontsultak egin zitzaizkien eragindako administrazio publikoei eta pertsona intresdunei, bai eta eragindako zerbitzu publikoko enpresei ere, 48/2020 Dekretuaren 11. artikulua aplikatuz.

Zazpigarrena.— Jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideetan jasotako alegazioak eta txostenak Solaria Eguzki Sorkuntza SL sustatzaileari bidali zitzaizkion, kontuan har zitzan.

Sustatzaileak adierazi zuen proiektuak aldatuko zituela, bildutako informazioan oinarrituta, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena.– 2025eko otsailaren 7an, Solaria Eguzki Sorkuntza SLk proiektu berriak eta ingurumen-inpaktuaren azterketa aldatuak aurkeztu zituen, jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideak hasteko.

Bederatzigarrena.– 2025eko uztailaren 2ko ALHAOn (74. zk.), 2025eko ekainaren 17ko EHAAAn eta 2025eko ekainaren 25eko BAOAn (113. zk.) argitaratu zen «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» eguzki-instalazio fotovoltaikeen eta haien ebakuazio-azpiegituren proiektuen eta ingurumen-inpaktuaren azterlan aldatuen jendaurreko informazioaren iragarki bateratua.

Hamargarrena.– Aldi berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kontsultak egin zitzaizkien eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, bai eta eragindako zerbitzu publikoko enpresei ere, 48/2020 Dekretuaren 11. artikulua aplikatuz.

Hamaikagarrena.– Jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideetan jasotako alegazioak eta txostenak Solaria Eguzki Sorkuntza SL sustatzaileari bidali zitzaizkion, kontuan har zitzan.

Hamabigarrena.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean ezarritako nahitaezko txostenak eta sustatzaileak horiei buruz eta gainerako txosten eta alegazioei buruz egindako gogoetak jaso ondoren, ingurumen-ebaluazioaren espedientea eratu zen, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara bidali zen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organo eskudun gisa, 2025eko irailaren 30ean.

Hamahirugarrena.– 2026ko urtarrilaren 27an, Red Eléctrica de España SAU garraio-sarearen operadoreak jakinarazi zuen iraungi egin zela «Solaria Zierbena Solar 3» instalaziora sartzeko eta konektatzeko baimena, ez zuelako bete ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena epe eta modu egokian lortzeko mugarrria, sarbide-baimena lortu eta 31 hilabete igaro baino lehen.

Hamalagarrena.– 2026ko otsailaren 20an, entzunaldi-izapidea eman zitzaion Solaria Eguzki Sorkuntza SL sustatzaileari, 15 egun balioduneko epean, aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera ezesteko ebazpena eman aurretik, alegazioak egin eta egoki iritzitako dokumentuak eta justifikazioak aurkez zitzan.

Hamabosgarrena.– 2026ko martxoaren 12an, Solaria Eguzki Sorkuntza SLk alegazio-idazkia aurkeztu zuen, eta hau adierazi:

- Ingurumen-inpaktuaren adierazpena ustez ezetsi izanaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan (1. plaza, 221/2025 prozedura arrunta, B1 atara, 2/2026 kautelazko neurrien pieza).
- Sarbide-gatazka aurkeztu zuen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean, Red Eléctrica de España SAUk erabakitako sarbide- eta konexio-baimenaren iraungipen-deklarazioaren aurka.
- Uste du ez dela bidezkoa jarritako bermeak betearaztea eta aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera ezestea, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren egoera juridikoa sub iudice dagoen bitartean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, hala xedatzen baita abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan, eta dekretu hori aldatzen duen urtarilaren 27ko 8/2026 Dekretuan (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena).

Bigarrena.— Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulua arabera, sortze-instalazioen administrazio-baimena ezin izango da eman titularrak ez badu alde zurretik eskuratu garraio- edo banaketa-sareetarako sarbide- eta konexio-baimenik.

Era berean, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira ekonomia suspertzeko, 1. artikulua 1. apartatua xedatzen du errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera sarbide-baimenen titularrek ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena lortu beharko dutela sarbide-baimena lortu eta 31 hilabeteko epean.

Eta, era berean, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua 2. apartatua honako hau ezartzen da: «Sarearen kudeatzaileari ez bazaio egiaztatzen mugari administratibo horiek betetzen direla garaiz eta behar bezala, automatikoki iraungiko dira emandako sarbide-baimenak eta, hala badagokio, sarbide- eta konexio-baimenak, eta garraio- eta banaketa-sareetara sartzeko eskaera izapidetzeko aurkeztutako berme ekonomikoak administrazio-baimenak emateko eskumena duen organoak berehala exekutatuko ditu. Nolanahi ere, sustatzaileari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik ingurumen-inpaktuaren adierazpena ez bada aldekoa, berme horiek ez dira exekutatuko».

Hirugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 29. artikulua ebazteko betebeharra ezartzen du, inguruabarrak adierazita.

Laugarrena.— Solaria Eguzki Sorkuntza SLk aurkeztutako alegazioei dagokienez, ez da bidezkoa alegazio horiek onartzea; izan ere, IIaren ustezko ezespenaren aurkako administrazioarekiko auzien prozedurak eta sustatzaile horrek hasitako sarbide-gatazkak ez dute eteten sarbide- eta konexio-baimenaren iraungipenaren ondorioa, eta iraungitze hori da proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera ezesteko eta artxibatze oinarria, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulua arabera.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Ezestea Solaria Eguzki Sorkuntza SLk «Solaria Zierbena Solar 3» instalazio fotovoltaikoaren eta haren ebakuazio-azpiegituren («Gopegi 220/30 kV azpiestazioa» eta «DC 220 kV aireko ebakuazio-linea SE Gopegi-SE Zuia») aurretiazko administrazio-baimena lortzeko egindako eskaera, eta 01GEY 202300034 espedientea artxibatzea.

Bigarrena.— Ebazpen hau Solaria Eguzki Sorkuntza SLri, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari eta prozedurako interesdunei jakinarazteko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioke Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakina-

razi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 23a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.